

OTO ETA POTOTO

GALDU DUZU ARIMA

Aldi artan Oto pertza saltzen ari zan eta jo du ipar-aldera. Mota guztietako pertzak saltzen ebazan. Batez be, pertza oriak, sukaldeko lautzetik zintzilik imintzeko pertzak. Azoketan ibiltzen zan txarri-zale ezagun bateri saldu eutzon pertza eder bat. Txarrizaleak ez eukan paltrikeran dirurik eta, txarriak saltzean ordainko eutzola pertza. Ordizia'ko azokan topatu dau Oto'k txarrizalea eta ordañak eskatu deutzoz; bañan, ipar-aldekoak zorra ukatu:

- Nik pertza ordaindu neuzun.
- Zuk? Noiz?
- Aurreko aretan: pertza erosi nebanian.
- Orduan ez zeukazun paltrikeran dirurik!
- Beti eramaten dodaz, diruak soñean...

Ez-ta-baida ez zan sekulan amaitzen eta besterik gabe, eraman du Oto'k txerrizalea epaitegira. Auzia erabakitzekeo testigurik ezean, onela galdetzen deuzo juezak txarrizaleari:

- Jainkoaren aurrean egia esango duzu?
- Bai, jauna.
- Esan ba: ordaindu duzu pertza Oto jaunari?
- Bai, jauna.

Orrenbestez bidaldu ebazan juezak biok kalera. Kalean doiazela, Oto'k iparraldeko berbetan:

- Galdu duzu anima.
- Baita zeuk be pertza.

ZENBAT JAINKO

Arbiloratan Oto, berriz be, txarteletara. Pazkozkoa egiteko, txartela bea; txartela atarateko Abadearengana joan bear, Dotriña-galderei erantzuteko...

- Ara, Oto, galdera oso erraza egingo deutzut. Galdera oneri erantzuten ume txikienak be badaki.
- Bai, ote...?
- Bai, bai. Ona galdera: Zenbat Jainko dira?

Oto'k ez zuen aspaldian Dotriñarik ikusi, be... Galdera-erantzunak guztiak ebiltzan bere buruan naastuta...

- Ara, Jauna... Aita, Semea eta Espiritu Santua, orra iru... Iru pertsonekin, ara sei... eta, Jainko bakarra, orra zazpi...

Abadearen etxetik irtetean, ara nun datorren Pototo bera be txarteletara.

- Zer, Pototo, txarteletan?
- Asmo orretan gatoz.
- Ez dago, ba, abadea umore ederrean...!
- Zer, ba?
- Ez dakidala zenbat Jainko diran?
- Zenbat izango dira, ba? Bat bakarra.
- Bai, bai, txo, esan ori... Bat bakarra dala esan da emango dik txartela iri...! Neri ez deust emon zazpi dirala esan da, ta...

DOSKABALLOSA

Baserrira bidea berritu berri dogu. Motor sidekarduna zaartu eta, Pototo beti dabil aurrera begira, eta automobilla erostea erabaki dau.

Zer erosiko eta Pugeot Doscaballosa erosi dau. Ura omen da baserrirako egokia eta merkea. Indar asko be ez dau, bañan...

Tresna berriak erakustea eta probatzea beti izan ei da atsegingarri.

- Oto, goizan Sollube aldera bi zaldi auker probatzera. Urduri nago ori egin arte.

- Goizan, goizan...!

Oto gizon atsegiña da: iñoren borondatea betetzeko beti prest...

Badoiaz bidean.

Automobillak kulunka apurren bat egiten dau; bañan bi zaldikoa bakarrik izateko, zer nai dozu geiago?

Bi zaldiak arnas-estuka doiaz aldatz-goran; bai ba, Sollube'k aldapatxoa be dauko ta...

Atzetik Mercedes indartsu bat. Orra tximistak artuta, aurrera!

Ori ikusita, Oto, Doscaballosen atea eraginda, irteten asi da... Bai muturreko ederra artun be kamiño-baztarren kontra...!

Bere automobilla geldituta, badoia laisterka, Oto'ren aldamenera, laguntza eskeintzen:

- Bañan, Oto, zer egin dok eure burua orrela automobilletik botatzeko.

- Neure burua bota...? Mercedesen martxa ikusita, automobilletik jetsitzen asi naz, geldirik egoalakoan...

AMABOSGARREN BIZITZA

Oto ta Pototok, etxegintzan jardun ondoren, beurentzako etxe-bizitza bat gorde dabe amabosgarren pixuan.

Etenik gabeko berba-jarioa eukan egun artan Pototo'k. Alan-bear eta aszensoreak indarrak ez egun aretan.

Oñez igo bear.

Amabosgarren bizitzan on goian dago.

Asi dira eskillera-maillatan gora...

Pototo berba ta berba etenik gabe...

- Entzun, Pototo...

- Egon ixilik neuk kontua amaitu arte!

- Bañan...

- Zer baiña, gero! Ixo!

Oto gizarajoa beti mendeko.

Pototo berta ta berba, izketan... Baeukan etorria egun aretan...!

Bosgarren bizitzan, Oto larri:

- Aizu, Pototo, gauza bat bearrezkoa...

- Ixililik neuk bukatu arte!

Amargarrenean, Oto geroz eta larriago:

- Pototo, mesedez, entzun...

- Ixooo!

Amabosgarrenean eldu dira biak, izerditan arnasa artun eziñik:

- Zer eukan ainbeste presarekin?

- Zera, Pototo, lenengo bizitzan utzi dogula giltza.